

Hitz beste

Haur eta gazte liburuen kritika eta erreseinak



Ni naizen guztia

ARRATE EGAÑA

Ilustratzailea: MARI MAR AGIRRE

Donostia, Erein, 2009

Zer gera gu?

«Zer gera gu?» galdetzen zuen duela hamarkada batzuetako kantak. Orain, postmoderitatearen ondoren, «zer gara gu» hori «zer naiz ni» bilakatu da gure gizartean. Arrate Egañaren liburu honek, baina, ez du bakardadea, ez du lehiakortasuna islatzen, gutako bakoitzaren benetako izaera zer den baizik.

Jakina, antzinatik filosofoek beren buruari egiten dioten galdera hori oraingoan haurrentzako liburu batean ageri zaigu; hots, haur txikiei kontaktzeko moduan, planteatzeko moduan dago eginik. Eta erantzuna, egokia izatekotan, hartzailearekin komunikazioa izatekotan, egokia izan behar.

Ni naizen guztia, bestalde, jolas bat da. Narratzailea neskatala bat dugu, bere bizitzako egun batean, esnatzen denetik gauean lokartu bitartean, zer egiten duen eta zer sentitzen duen kontatzen digun neskatala bat da liburu honetako narratzailea. Horrela, goizean enbor bat da —«ez naiz oso umore onez ibiltzen, egurrezkoak ditut gorputza eta aurpegia»—, ondoren txori bilakatuko da eskolarako bidean «saltoka eta korrika», lastargi eskolan, munstroa jolastokian... eta, egunak aurrera egin ahala,

6+

izaera eta sentimendu ezberdinetako gauza eta izaki izango da istorio narratzailea. Konparaketa horietan oinarritu da Egaña liburuaren nondik norakoa egiteko; eguneroko une ezberdinetan egoerek sorrarazten dizkiguten sentimenduen inguruko konparaketetan. Ideia labur, simple, argi horiek Mari Mar Agirreren irudietan argi eta garbi islatzen dira, gainera, ulermena laguntzeko, testua osatzeko.

Liburuak gauzen sinpletasuna eta izaera bakarra errebindow edo islatu beharrean, konplexutasunaren aldeko alderria dugu. Zer gera gu? galdera hari (edo zer naiz ni oraingoari) erantzun bakarra eman beharrean, Egañak erantzun multzo bat proposatzen digu. Liburuko narratzailea enborra dela esan dugu, baina baita txoria, lastargia, munstroa, puxika, sagutxoa, pailazoa, bikingoa, kapitaina... horiek guztiak direla esaten digu neska gazte narratzaileak, baina benetan zer den galderak azken orrian izango du erantzuna, aurreko guztien gainetik dagoena eta aurreko guztiak hartzen dituen erantzuna. Eta hain zuzen erantzun horrek ematen dio zentzua, osotasuna, liburuari eta liburuak planteatzen digun galderari.

Arrate Egañaren eta Mari Mar Agirreren artean eskaintzen diguten liburu hau, nahiko kontu serioa ukitzen duela eman arren ikusi den bezala, jolas bat da, entretenimendu alaia, dibertitzeko eta ondo pasatzeko aukera bat... haur txikientzako literatura hain zuzen.

Xabier Etxaniz Erle



Ipuin-kontalariaren lapikoa

PELLO AÑORGA

Ilustratzailea: JOKIN MITXELENA

Aizkorri, Bilbo, 2009

Kontaktetaren beste kontaketa bat

Bere ibilbide literario luzean zehar, joan den mendeko laurogeietan *Hola hala behin* lehen liburuaren aurkezpenean oliba baten gorabeherarekin entzule guztiok harrিতuta utzi gintuenetik, originaltasuna, begirada dibergentea izan da Pello Añorgaren obran nagusitu den konstantea, narritaban bezala poesian ere.

Azkenotan entseetzen ari den bidea ahozko narrazioa idatzizkoarekin uztartzea da, ezagunak baitira Añorgaren ipuin-kontaktetarako trebezia eta eskarmentua. Lehen saialdia duela hilabete batzuk egin zuen «Ipuin-kontalaria» liburuaren bitartez, Aizkorri argitaletxean bertan. Orduan, ipuin-kontalariak Txanogorritxoren ipuina kontatzen zuen funtsean, beste istorio asko tartekatzen zituen konplexutasun handiko narrazio batean. Emaitza harekin pozik geratuta, nonbait, bide beretik jarraitzea erabaki du, «Ipuin-kontalariarena» dei daitekeen saila osatzen joateko asmoz.

Sail horretako bigarren lana da oraingoan iruzkingai duguna: *Ipuin-kontalariaren lapikoa*.

Aurrekoa baino soilagoa eta ulerterrazagoa bada ere, eszenatoki eta koordinada narritibo

berberak erabiltzen ditu: liburutegira ipuin bat kontatzera doan ipuin-kontalaria, Añorgaren beraren *alter ego*, eta entzuten ari den umetaldearen ordezkari den «gu» baten bidezko narrazioa. Alegia, zuzeneko jarduna alde batera utzita, liburuko istorioaren berri ematen diguna ez da ipuin-kontalaria, haren ispilu diren ume entzuleen bigarren eskuko narrazioa baizik. Eta horrek perspektiba bitxia eta modernoa ematen dio lanari.

Aurrekoan bezala, orobat, umeen arreta erakartzeko eta jakin-mina pizteko objektu bat ekarri du kontalaria; aurrekoan kutxa bat eta giltza bat izan ziren, oraingo honetan lapiko bat eta su txikia, orduan bezala metafora gisa funtzionatzen dutena. Eta, nola ez, kontatu beharreko ipuinari hasiera emateko formula bat: «Txokolate, txokolate, ipuina bukatu arte».

Orduan ekin dio «Hamar sagutxo»en ipuina kontatzeari, kantu bat tarteko. Ipuin hori, esan bezala, anekdotikoa da haur xarmatuaren ahotik ezagun dugun giro magikoaren aldean. Umeek bizi egiten dute ipuina: beldurraren beldurrez, oihukatzen hasten dira, kanpoan zain dauden gurasoak alarmatzeraino; txaloka hartzen dute datorren amaiera zoriontsua «Eta katu eta katu, ipuina bukatu» esanaz batera.

Emaitza, oraindik ere idatzizko haur literaturan bizirik dagoen eta hain jasanezina egiten zaidan «ahozko narratzaile transferitu» haren iruzkin pedagogiko eta paternalistetatik urruntzen da, gaur eguneko umeen psikologiarekin guztiz bat etorrita. Kontalariaren jarrera, gainera, ez da berbalapiko batena, ohiko galdera erretorikoak eginez umeak bereganatzen dituen; aldiz, isiluneekin trebeki jolastuz lortzen du tentsioari eta suspentseari eustea, hurrei egonaria galaraziz.

Jokin Mitxelenaren irudi biziak, tarteka «Txitoeen istorioa» hartarako Asun Balzolak egindakoak gogora ekartzen baitituzte, ederki islatzen dute ipuin-kontaketaren giroa, agertzen eta desagertzen den katu beltz kezagarri bat eta guzti.

Pello Añorgak iaz «Jenio gaiztoa» liburuagatik Euskadi saria jaso bazuen, oraingoan gutxienez nazioarteko sariren bat eman beharko liokete obra hauengatik, nire uste apalean esanda eta epaimahaikideen erabakian eragiteko asmorik gabe.

Manu Lopez Gaseni



Hitz eta zaunka
JOXAN ORMAZABAL
 Ilustratzailea: JOSE BELMONTE
 Elkar, Donostia, 2009

Hitz eta jolas

Rodarik fantasiaren gramatika egin zuenean hainbat erregela jarri zituen paper gainean. Horietako bat gauzak aldrebes gertatzen zireneko du; eta hain zuzen horixe bera da Joxan Ormazabalek bere azken ipuin honetan egin duena, gizakia zaunkaka jarri eta zakurra hitz egiten.

«Bazen ehiztari bat oso tirolaria, tiro eta tiro ibiltzen zena. Txakur bat ere bazen oso zaunkaria, uau eta uau isiltzen ez zena. Ehiztariak tiro eta zakurra zaunka»; horrela hasten da *Hitz eta zaunka* ipuin labur hau. Ondoren, zakurrak susto ikaragarri baten ondorioz ezingo du zaunka gehiago egin eta hitz egiten hasiko da; hori ikusita ehiztaria izango da sustoa hartuko duena eta zaunkaka hasiko. Abiapuntu aldrebes horretatik abiatuta Ormazabalek jolas bat proposatzen digu, izan ere irakurlea etengabe ibiliko baita arazoari irtenbide baten bila edo idazleak jarritako konponbidea asmatu nahian.

Joxan Ormazabalen obra jarraitu duen edonork pistaren bat edo beste izan dezake, eta, irtenbidea ez asmatu arren, ohartuko da umorearen bidetik helduko diola idazle ezagunak. Eta, hain zuzen, umorearen eta fantasiaren arteko konbinaketa


horretan Jose Belmonteren irudiek badute bere pisua, bere ekarpena, egoera fantastiko hori islatzen oso ondo jakin duelako irudigileak, idazkiaren tonuari ederki lotutako ilustrazioak eginda.

Hitz eta zaunka ipuinak, lehenago aipatu bezala, egoera aldrebes baten egoera islatzen du, baina horrez gain, Ormazabalek ehiztariaren eta zakurraren «arazoa» konpondu ondoren (eta konponketak ere badu fantasia puntua) bestelako ideia bati helden dio: «Txakurrak eta haren nagusiak ez zirela gehiago ehizara joango erabaki zuten». Hots, ipuineko protagonistek beste plan bat egiten dute, beren zaletasuna albo batera utzi eta arma-museoan eskopeta laga ondoren «musika-dendara joan eta gitarra bat erosi zuten».

Kontakizunaren amaierak balio du irakurlearengan irribarrea sorrarazteko eta kanta bitxi eta umoretsu batzuei bidea emateko; liburu honetan narratiba, poesia eta irudia ageri baitzaizkigu elkarrekin testu postmodernistetako generoen nahasketa islatuz. Eta narrazioan bezala, poesian ere argi eta garbi ikus dezakegu Joxan Ormazabalen esku trebea literaturarekin, hitzekin, onomatopiekin... jolasteko:

«Zinki zaunka
 zinki zanka
 zinki zaunka zunk.
 Zunk, zunk, zunk eta zunk.
 Hitz mintza
 hitza mintza
 hitza mintza punk.
 Punk, punk, punk eta punk.
 Hinki minki
 hanka manka
 dantza dantza guk.
 Guk, guk, guk eta guk.»

Xabier Etxaniz Erle



Aurrera kakarraldo!
 JAVI CILLERO GOIRIASTUENA
 Ilustratzailea: DEI GAZTELUMENDI
 Aizkorri, Bilbo, 2009

Aurrera egiteko

«Behin batean, kakarraldo bat agertu zen lur zati batean. Jantzki beltz bat zeraman soinean eta maleta txiki bat eskuan.» Horrela hasten da ipuin labur hau. Protagonista nagusia kakarraldoa izango da, beste lurralde batetik azaldu den kakarraldo beltz eta isila. Baina pertsonaia haren alboan badira beste hiru, matxinsaltoa, tximeleta eta mandeulia, kakarraldoari aurre egiten; haur ipuinetan hain ohikoak diren on/gaizto, atsegin/desatsegin protagonista bikotea eskainiz oraingo honetan ere. Izan ere, kakarraldoaren aurrean ageri diren hiru animaliek bloke bat, protagonista bat bezala jokatzen baitute. Hiruek elkar osatzen dute; nortasun bat, jokabide bat, jarrera bat adierazten dute.

Kakarraldoa lurralde berri batera iritsi da eta bertakoek kritikak jasan beharko ditu. Kanpotik dator, beltzez jantzia, ez daki hegan egiten... baina Cillerok eta Gaztelumendik aurkezten diguten kakarraldoak irakurlearen sinpatia bereganatuko du. Identifikazioa gertatzen da irakurlearen eta kontakizuneko protagonistaren artean; are gehiago kakarraldoak ortzadarrarekin duen jarrera ikusita, hasieran harritu —haren edertasunarekin— eta ondoren, ortzadarra harrapatu nahia. Dei Gaztelumendiren irudiek, intsektuak pertsonifikatuz, kolore biziak erabiliz, ortzadarraren alaitasuna eta bizitzaren alde ilun eta tristeak tartekatuz, ederki laguntzen


6+

dute kontakizunaren hariarekin bat egiten. Irudien tonua eta idazkiarena bat etortzeaz gain ilustrazioak informazio gehigarria ematen baitigu. Horrela, matxinsaltoa, tximeleta eta mandeuliak kakarraldoa engainatzen dutenean, irudiak adierazten digu horretan ari direla. Eta kakarraldoak entzuten du ortzadarra nola harrapatu... jakin barik adar jotze, edo are okerrago, bera urruntzeko trikimailua besterik ez dela.

Liburua kakarraldoa iristen denean hasten da eta amaitu, beriz, lur horretatik alde egiten duenean. Ez zaigu gehiegi axola nondik datorren, ezta ondoren zer egingo duen, garrantzitsua kakarraldoaren garapena izango baita.

Aurrera kakarraldo! hau hainbat irakurketa maila eskaintzen dizkigun ipuina dugu. Ez bakarrik testuaren eta irudien irakurketak, baita argumentuen hainbat interpretazio ere. Intsektuen arteko kontu sinple batetik, integrazioa eta aniztasunaren aurrean ditugun jokabide ezberdinetara edo zailtasunekin ere aurrera egiteko borondatea bezalako kontuak interpreta daitezke itxuraz oso sinplea den kontu honetan. Baina izenburuak berak adierazten duen bezala, ipuinean bada eragozpenen gaitetik aurrera egiteko nahia, bada animatzeko gogo, zailtasunak gaindi daitezkeen erakusteko asmoa eta adibidea. Eta liburu eder honen amaiera —eta kasu honetan azken orrian ageri den irudiak testuak baino informazio gehiago ematen du, kakarraldoaren irribarreak idazkiak esaten duenetik harantzago eramaten baikaitu— arestian aipatutako borondate, asmo, nahi horren isla ederrena da.

Xabier Etxaniz Erle



Makaleko beleak
 ALDOUX HUXLEY
 Ilustratzailea: PEP MONTSERRAT
 Itzultzailea: JOXEAN SAGASTIZABAL
 IkaSMina, Bilbo, 2008

Ipuin ahaztua

Aldoux Huxley (1894-1963) nobelagile, saiogile eta kritikari ingeles famatuak oparitu zion ipuin hau bere iloba Olivieri 1944. urteko Eguberrietan, umeentzat idatzi zuen ipuin bakarra.

1967an, gaztelaniaz Debate argitaletxeak kaleratu zuen eta, orain dela pare bat urte, SMK berrargitaratu zuen.

Euskaraz dugun Huxleyren bigarren liburua da hau. Orain dela hogeita hamar urte pasatxo, 1971n, «Bai mundu berria» ezaguna kaleratu zuen Lur argitaletxeak Xabier Amurizaren itzulpenari esker; geroxeago, 1994an, Elkar argitaletxeak beriz atera zuen.

Datu horiek guztiak interesgarriak dira, azpimarratzeko ahanzturan geratzen direla klasikotzat jotzen diren zenbait idazle handiren liburuak (heldu, haur edo gazteentzakoak), behin bakarrik argitaratuta, klasiko bati zor zaion berrargitalpenik gabe.

Esku artean dugun ipuin honen edizioari erreparatuta ere, aipatu behar da bilduma xume batean argitaratu ordez, album ilustratu baten formatuan asko irabaziko zukeela. Pep

Montserratin ilustrazioak hain dira adierazgarriak eta ederrak, tamaina handiagoko orrietan ikusteak mesede eta justizia egingo lioke idazle handiari, eta zer esanik ez marrazkilariori. Horrela, estetikoiki bederen, irakurleok aukera izango genuke koloreaz eta ilustratzaileak narrazioari ematen dion formen testura ezberdinez gustura gozatzeko.

Joan gaitetzen, bada, ipuin honen berezitasunaz hitz egitera.

Kontakizunak egungo fabularen itxura hartzen du, animaliak dira protagonista; baina, ez pentsa!, lana egiten dute –gaueko txandan, gainera–, irratiko kontzertuak entzuten dituzte, etxeko zapatilak jantzita ibiltzen dira eta, euren gain hartutako arduen ondorioz, «bihotza erdibituta» izaten dute, hots, pertsonak bezala jokatzeko dute.

Californiako Pearlblossom-eko basoan dena ez da zoriona. Bele-bikotea kezkatuta dabil, gauero

habiatik arrautza txiki bat desagertzen zaielako, suge gosetiak janda. Euren arteko demanda eta ezinegona konpondu nahian, hontz lagun argiaren aholkua kontuan hartuko dute. Hontzak gaizkileari aurre egiteko ezinbesteko tresnak erakutsiko dizkie: ideiak ondo hausnartu eta pazientzia izan.

«Itxaron eta ikusi, eta ez gehiegi hitz egin», hori da hontz jakintsuak erabiltzen duen formula. Leloa errepikatu eta adimena erabiliz, arazoari irtenbide egokia emango dio. Bele-bikoteak kumeak lasai izan ditzake lapurretaren bildurrik izan barik, sugearen larrua arropa esekitzeko erabiliz.

Idazleak ondo menperatzen dituen umore fina eta ironia zorrotza erabiltzen ditu, eta horiek ezinbesteko ukitu dira irakurketak aurrera egiteko modu samur eta arinean. Kanta txiki bat

ere tartekatzen da ipuinean, sugearen arrangura erakusten duena, haur ingelesek ondo jakingo dutena, agian. Hori guztia Joxan Sagastizabalen itzulpen ederrari esker.

Liburuaren amaieran, Oliviak azaltzen digu ipuinaren kopia bat aurkitu zuela idazlea hil ostean, eta nola argitaratu zuen.

Ipuin hau gaur egungo gizartean oso modu egokia uztartzen da; alde batera uzten badugu, behintzat, politikoki zuzena den edo ez. Adibidez, bele emea negartia eta akziorik gabeko izakia da eta harrek istorioaren nondik norakoa konpontzen eta bideratzen dute. Alferrik irakurriko ditugu ipuin klasikoak gaur egungo begiekin, iragazki hori erabiliz gero, ipuin asko baztertuta geratuko lirakeke eta.

Zorte onekoak gu denboran hain luze galduta egon den harri bitxi hau berreskuratu delako.

Asun Agiriano

El secreto del oso hormiguero

BEATRIZ OSÉS

Ilustratzailea: MIGUEL ÁNGEL DIEZ

Faktoria K de Libros, 2009

Orihuelan jaio zen Miguel Hernándezen omenez, hango Udalak eta Faktoria K de Libros argitaletxeak elkarlanean, haur-poesia sustatzeko xedez, lehenengo haur-poesia lehiaketa antolatuta zuten iragan urtean, eta, dagoenez, erreferente bilakatu da gaztelaniadun munduan. Hain zuzen ere, lehenengo edizioko horren emaitza dugu *El secreto del oso hormiguero* poema-bilduma, Beatriz Osés kazetari eta idazle madrildarrak idatzia eta Miguel Ángel Díezek (Aspe, 1973) egindako marrazkiez hornitua.

Beatriz Osések, literatura eskolak emateaz gain, Extremadurako Unibertsitatean dihardu umeengan irakurzaletasuna sustatzeko ekinaldietan. Ezagun da hori haren eginkizun literarioan, bete-betean asmatzen baitu irakurleengana iristeko garaian. Askok ezagutuko duzue, ziur aski, haren *Cuentos como pulgas* ipuin laburrez osaturiko liburua, 2006 urteko Sorkuntzako Lazarillo sarirako deialdian garaile suertatu zena.

Eguneko ajeak bazterrean utzi eta eguna iluntzearekin batera lotarako ordua iritsita, umeak irudika genitzake *El secreto del oso hormiguero* liburua galtzarbean dutela ohera bidean. Izan



ere, aukeran, egun argiz baino gehiago gauzez irakurtzeko poemak dira egileak liburu honetara ekarri dituenak. Gauak badu xarma berezia, eta magiaz zipiritinduriko giro oniriko horretan ederki egokitzen da animalien ametsak eta sekretuak dituen gordailu hau.


Hogeita hamaika poemak osatzen dute liburua eta ezaugarrietan nabarmentzekoak dira berorien kalitate eta balio poetikoa. Hitzeko irudi irado-korren aberastasuna, umorea eta samurtasuna

tartekatzen dira orrietan aurrera; haurren jakin-mina pizten dute. Ezaugarri horiek guztiak amu bilakatzen dira eta haurrak berehala egingo du tenk. *El secreto del oso hormiguero* pieza gutxiarekin egindako puzzle poetikoa dela esango nuke, hitzetan labor eta adierazpide eta bitartekoetan aberats eta jori. Bertan animaliak dira nagusi, batzuetan denon ezagunak diren animaliak (balea, inurria,...) eta, bestetan, berriz, Beatriz Osések berak hutsetik sorturiko alegiazkoak, *azofaifak* eta *damusinoak*, kasu. Errealitatea eta irudimena eskutik helduta dabilta, elkarren osagarri dira eta bi mundu horietara gerturatzeko bide polita urratuko du irakurleak poemon eskutik.

Beste ezaugarri bat aipatze aldera, poemak ontzeko orduan idazleak darabilen tankera laburra da, minimalismoa. Baina laburtasun horretan handitasuna dago, lerro bakan batzuetan istorio oso bat kontatzeko adinakoa. Honen harira, *El problema de los caracoles* izeneko poematxoa aipa genezake: «*Mientras se lavan los cuernos/ y se ponen el pijama/ se les hace ya de día/ y no han llegado a la cama*».

Beatriz Osésen moldeari marrazkiz atxikitzeko garaian Miguel Ángel Díez ilustratzaileak agertu duen talentuari aipu berezia egin behar zaio ezinbestean, ametsen goxoa eta poemaren zirrara handiagoa baita haren ilustrazio ederrak lagun.

Xabier Olaso



Torrepeko zaldunak
ALAITZ OLAIZOLA
Ilustratzailea: JON ZABALETA
Erein, Donostia, 2009

Irakurtzeko eta jolasteko

1997an Xabier Diaz Esartek honako hau zioen bere liburu baten hitzaurrean: «liburu hau ez da inolaz ere ikastetxeetatik baztertu behar. Ondoko hiru gidoi hauek oso testu irakurgarriak dira. Ohiko irakurketaz gain, nor bere xaxa egiten duena, zeharo aproposak dira irakurketa dramatizatua, taldeka eta irakasleon gidaritzapean egiteko».

Urteak pasa dira eta ezer gutxi aldatu da euskarazko literaturan arlo honi dagokionez, oso gutxi dira euskaraz argitaratzen diren antzerki lanak irakurtzeko eta dramatizatuzko. Hutsune hori bete nahian edo, duela urte batzuk Erein etxeak ekin zion «Antzoki txikia» saila kaleratzeari eta *Torrepeko zaldunak* hau dugu oraingoz argitaraturiko azken lana.

Diaz Esartek aipatu bi helburu horiei erantzuteko testua da *Torrepeko zaldunak*; irakurleak erraz eta arin irakurtzen duen testua dugu alde batetik, baina liburu hau ere dramatiza dadin, dramatiza dezaten, idatzita dago eta horregatik dugu kontakizunaren aurretik liburuaren sinopsia, agertokia, zein adinetako haurrei zuzendua dagoen eta nolakoak diren liburuak agertzen diren pertsonaia. Hasiera horretan ere aurki dezakegu gelako ikasle kopuruaren arabera nolako aldaketak

egin daitezkeen pertsonaia gutxiago edo gehiago sartzeko antzezpenean.

Alaitz Olaizolak eskaintzen digun istorioaren argumentua oso sinplea da eta nahiko egitura errepikakorra duenez, erraz samarra dramatizatuzko. Atzerritik etorritako bi zaldunen istorioa kontatzen zaigu, bata Galiziatik etorri eta Torrepeko inguruetan geratzen dena bizitzen; bestea Kataluniatik dator eta mendi horren beste aldean geratuko da. Bi zaldunak harrিতa daude euskal mendi eta basoen edertasunarekin eta bakoitza bere aldetik herri banakako biztanleekin jartzen da harremanetan.

Testua di-da batean irakurtzen da, elkarrizketek –ohikoa dena bestalde antzerki lanetan– ia testu guztia betetzen baitute; oso deskribapen gutxi daude eta egoerak pertsonaien adierazpenen bidez azaltzen dira. Gertaerak, gainera, badu interesa, irakurleak jakin nahi du zer gertatuko den bi zaldunen, bi herrien, artean; baina era berean, irakurleak istorioaren bi aldeak batera ezagutzeari amaiera aurreikus dezake. Hala eta guztiz ere, testuak ez du interesik galtzen eta erraz eta gustura irakurtzen da.

2007ko abenduan aldizkari honen 16. zenbakian eginiako elkarrizketa batean eskolan antzerkiaren lanketaz ahozko erregistroa, gorputz-adierazpena, plastika, balioak, zehar lerroak eta abar lantzeko balio duela zioten baina hala ere zerbaitek huts egiten duela. Horren aurrean Aizpea Goenagak honako hau zioen: «irakasleek ez dute gaia menderatzen. Helduok ere ez dakigu antzerkia irakurtzen; ikasleei nola erakutsi orduan?». Zalantzarik gabe, honetan ere lan handia dugu oraindik egiteko, baina agian *Torrepeko zaldunak* hau bezalako liburuetatik abiatu beharko genuke denok.

Xabier Etxaniz Erle



Zangozikin
KOLDO IZAGIRRE
Ilustratzailea: ANTON OLARIAGA
Igela, Iruñea, 2009

Bizitza puska

Bartzelonako Takatuka argitaletxeak ezohiko liburuak kaleratzen ditu, egungo gaiak kitzitzen dutenak: solidaritatea, justizia, e.a.; betiko estereotipotik urruntzen direnak.

Koldo Izagirre idazle ezagunaren haurrentzako albuma plazaratu du aurten, katalanez eta gaztelaniaz. Euskaraz Igela argitaletxeari esker dugu, *Zangozikin* izenburuarekin. Igela taldeak, hasieran, mundu osoko literaturako obrarik esanguratsuenak hautatu eta itzulpenak argitaratu eman zituen; oraingoa, euskal idazle zorrotz eta fin baten liburu ilustratu batekin ausartu da, eta eskertzekoa da.

Itxurari erreparatuta, haur txikiak dela dirudi, baina istorioak sakontasuna du, zer pentsatua ematen du; eta, horregatik, irakurleak gutxieneko heldutasuna behar du izan.

Udako arratsalde sargorian, haur protagonista kalean dabil jolasean, «Zangozikin» deitzen diote lagunek. Plazan, telefono-kabinara iristen diren etorkinen solasak entzun, eta euren bizimodua irudikatzen du: urrun bizi dira eta jaioterrian daudenei kontatzen diete hemen zertan dabilzan, non lan egiten duten, nolakoak diren gure ohiturak eta hainbat kontu.

Horrela, «hizkuntza ulertzen ez badie ere», Zangozikinek asmatu egingo ditu telefonora hurbiltzen diren pertsonen bizitza puska: Hassanen kezka, Waytaren festarik festako ibilbideak e.a. denon berri izango du plazan olgetan dabilen bitartean.

Liburua aurkeztu zuenean, idazleak horrela zioen: «Immigrazioari buruzko ipuina da, baina

edozein idealizaziotik urrun dagoena. Oso literatura pedagogikoa dago indartua: gurasoak bananduak daudela, drogak direla, zaharren egoerak... oso pedagogizatu dago, eta horrek testua bera eta istorioa bera askotan baldintzatu egiten du. Heroiak positiboa izan behar du beti, konflikto berezirik ere ez da onartzen... Horrelakoa izango ez litzatekeen zerbait egiteko asmoa neukan».

Eta helburua lortu duela esango nuke, «hiper politikoki zuzena» izateko joerari aurre egiten dion liburu baina. Integrazioaz eztabaidatzeko aukera emango digu oso modu gordinean, adibidez, protagonista beltza izanik, «Zangozikin» gaitzinez deitzea krudela egiten zait. Kanpotik ekarria da eta hemengo familiak ziurtatu egin dio etorkizun ekonomikoa eta emozionala, baina berak ondotox daki sustraiak han dituela. Telefonoz hitz egiten duten etorkinek, berriz, lotura gorde dute euren herriarekin baina konturatazen dira aukera gutxiago izango dutela bizimodu erosoa lortzeko.

Antton Olariaga marrazkigileak egindako lanaren inguruan, berriz, jakina da maisua dela bere ofizioan. Lan honetan, irudia ez da inolaz ere testuaren apaingarri izango; idazle eta ilustratzailearen elkarlana baino, elkarriketa da. Bakoitzaren lanak bere pisua du, eta agerian dago bien arteko harremana aberasgarria izan dela, irudia ezinbestekoa izango da testua osatzen joateko, istorioa eraikitzeko. Idazleak horrela azaltzen zuen: «Nik ezin nuen dena kontatu. Zati bat utzi behar nion irudiari. Irudirik gabe liburu honek ez dauka zentzurik, irudirik gabe ez da ulertzen. Eta horretan Anttonek [Olariagak] lortu du plus hori eranstea».

Horrela bada, irakurlearen heldutasunean datza liburu honen gakoa, irudiek duten ezustekoak ulertzeko eta ironia eta umore ukituei erreparatzeko.

Azken finean, liburu on bat.

Asun Agiriano

8 +



Rita poloan

MIKEL VALVERDE

Ilustratzailea: MIKEL VALVERDE

Itzultzailea: JUAN MARTIN ELEXPURU

Elkar, Donostia, 2009

Abenturak eta umorea Poloan

Mikel Valverde ilustratzaile ezaguna dugu orain liburu honen egilea. Rita izeneko neskato bizkor eta sinpatikoa da sail honetako protagonista. Eta haur txikiarentzako album onetan gertatzen den bezala irudia eta testuaren arteko oreka informazio gehiago lortzen du liburu hauetara hurbiltzen denak, izan ere egilea idazle eta ilustratzaile izateak ahalbidetzen du hainbat informazio kode batean edo bestean transmititzea. Ritaren deskribapen fisikorik, esaterako, ez dugu aurkituko; ez delako behar Mikelek ederki erabili ditu irudiak informazio hori emateko eta testua, aldiz, bestelako kontu batzuetarako erabili du.

Rita Poloan bidaia baten kontakizuna dugu. Osaba Danielek Rita gonbidatzen du aste pare batez Polora. Osabak ontzi izotz-hausle batean joan behar du base zientifiko batera, eta iloba gonbidatzen du. Rita eta bere aita hegazkinez joango dira, orduan, base zientifikora eta iristean albiste kezagarri batekin aurkitzen dira. Osaba dakarren ontzia harrapatuta geratu da izotz artean eta ez dute janaririk ez erregairik. Inuitak laguntza

espedizio bat antolatzen hasi dira eta Ritaren aita beraekin joango da ontziaren bila.

Misterio eta abentura kutsua hartzen du ipuinak, baina baita inuiten bizitzaz gozatzeko aukera eskaini ere. Ritak igluak egiten ikasiko du, inuiten arropen berotasuna sentitu, elur leretan ibili... eta hori guztia Panuk lagunarekin, bere adineko inuit gaztearekin. Ritak eta inuit gaztetxoek ontzikoak eta hauek erreskatatzera joan direnak erreskatatu beharko baitituzte. Motordun ibilgailuetan joan ziren haiek izotz bloketan sakabanaturik geratu baitziren eta gaztetxoek zakurren laguntza guztiak erreskatatu beharko zituzte.

Kontaketa bizia da, ekintzak bezala, eta irakurlea harrapatzen duten gertakariez josita. Baina abentura liburu honen hanka bat baldin bada, bigarrena umorea du (zenbait kasutan absurdora iristen den kutsuaz), eta umore puntu hori jartzeko orduan bada protagonista nagusi bat: Filipino pinguino. Tokiz kanpo (hego polokoa izanik) baina, era berean, guztiz integratuta eta gustura aurkitzen den protagonista honek umore kutsua ematen dio kontakizunari, egoerak desdramatizatzen laguntzen du, ... eta hartzekin duen enkontuan egoera absurdoetara jotzen.

Mikel Valverde ezaguna egin zen ilustratzaile gisa, orain, berriz, Ritaren sailari ekin dio idazle paperari garrantzi handiagoa emanez. Dagoeneko dozena erdi bat titulu argitaratu dira erdaraz eta espero dezagun, Elexpuru eginiko hau bezalako itzulpen txukun eta zainduen bidez, guztiak ikustea euskaraz. Ziur gaude Rita hau ereduagarria dela gure neska bizkor eta ipurtarinentzat, L. Sánchez Corrallek zioen bezala «beren nortasuna eraikitzeko», eta baita honako literatura entretenigarri eta atseginera hurbiltzen diren mutikoentzat ere.

Xabier Etxaniz Erle



Elurte bateko ipuinak

PAKO ARISTI

Ilustratzailea: MANU ORTEGA
Erein, Donostia, 2009

Autofikzioa haurrentzat

Berriro etorri zaigu Pako Aristi haur literaturaren plazara, oraingoan «haur literatura» terminoaren bi zentzuetan: haurrentzat egindako literatura eta haurrekin egindako literatura. Izan ere, liburu hau Intxaurrendoko Ikastolako hamaika urteko haurrekin lankidetzan idatzia izan da. Idazleek egin ohi dituzten bisita horietako batean, ikastolako haurrek beraiei buruzko liburu bat idaztea eskatu omen zioten Aristiri. Pixka batean pentsatu eta gero, baietz esan zuen, baina horretarako ipuintxo bana bidali beharko zioten, idazleak haien berri zehatzagoa izateko. Ipuin haiek guztiak bildu, eta fikziozko hari argumental batean txertatu zituen Pako Aristik. Azken emaitza *Elurte bateko ipuinak* izan da.

Liburuak ahots askotako «Mila gau eta bat gehiago» delakoaren antza hartu du, halako bertsio posmoderno batean. Espazio-denborako koordinadak gora-behera, istorioa oso ezaguna egingo zaio bati baino gehiagori: Pako Aristi izeneko idazle bat, eskola-bisita batzuk egin ondoren, Galiziara abiatu da bere maitearekin egotera. Bidean, ordea, izugarri gaiztotu zaio eguraldia, elurrak autopistako auto guztiak geldiarazteraino. Orduan poliziak inguruko

10 +

polikiroldegi batera eraman ditu autoetako lagun guztiak, bertan gaua eman dezaten. Halaber, Intxaurrendoko Ikastolako haurrek Peñiscolara eraman behar zituen autobusa ere butxadura berean suertatu da, eta haurrek Pako Aristi ezagutu dutenean han hasi dira kontu kontari ia gau osoan zehar.

Halaxe da, bai; aspaldi honetan autofikzioa boladan dago, nonbait. Haurrentzako autofikzioa, oraingoan.


«Primerako idazle jator guai guapoak», baina, ezin du ahaztu bere zeregin didaktikoa, eta umeei istoriotxoak kontatu ahala «ipuinak idazten ikasteko dekalogo» aletzen joango da, Platon eta haren jarraitzaileen arteko gogora dakarren harreman dialogikoa.

Kontrapuntu gisa edo, liburuaren amaiera aldean Aristiren alderdi arau-hauslea agertu da, eta gaur egun (zoritzarrez) gero eta argitaldари gutxiagok onartuko luketen egoera konprometitu samar batean sartu ditu Intxaurrendoko haurrek, irakurlearen pozerako.

Haurrek kontakutako istorio eta pasadizo ugariak ondo josita geratu dira egileak hartarako asmatutako uztaien, eta liburuak emaitza orijinala da zalantzarik gabe.

Ondoegi lotu gabe geratutako zenbait hari, eta baita zuzenketa faltan dauden zenbait pasarte badira ere, oro har, osotasunaren irudia oso balekoa da.

Manu Lopez Gaseni



Ilar-purea

DANIEL NESQUENS

Ilustratzailea: ELISA ARGUILÉ

Itzultzailea: MANU LOPEZ GASENI
Anaya-Haritz, Madril, 2009

Ospitaleko ezereza

Nesquensek eskaintzen digun liburu hau oso berezia da izenburutik bertatik hasita egitura eta istorioraino. «-Ingalaterran ilar-purea deitzen diote ezer ikusten ez duen laino trinkoari». (64. or.) diosku Aaronek liburuan; eta, hain zuzen, laino trinko batean sarturik dagoen ume baten istorioak, gogoetak, oroitzapenak biltzen dira liburu honetan. Horrela, ohiko istorio lineal eta sinpleen ordean iragana eta orainaldiaren arteko salto artean ibiliko gara orrietan zehar. Narratzailea ospitalean dagoen mutiko bat da, Aaronen ondoko ohean dagoena, eta hainbat istorioen bidez bertako egoera, nola iritsi zen ospitalera, bere familia eta lagun berri eta beste mila kontu bitxi azalduko dizkigu nobela entretenigarri honetan.

Ugaritasun horrek bi sentsazio sorrazten ditu irakurlearengan; alde batetik, erregistro aldetik, aberastasunarena eta, bestetik, gaien dispersioa. Narratzaileak amarekin edo Aaronekin dituen elkarriketak kontatzen dizkigu batzuetan (nahiko surrealistik horietako batzuk, Aaronek «euli» hitza berak asmatua dela dioenean bezala, 58. or.); beste batzuetan, gertaera sozialak (herrian

ministroak hondakin instalazioa jarri zueneko, esaterako) edo, asko eta asko narratzaileari berari bururaturakoak eta jazotakoak.

Ospitalean daukagu narratzailea, ohean etzanda, eta hankan mina duela. Poliki-poliki, narrazioa aurrera joan ahala, jakingo dugu bizikleta istripu bat izan eta hezurrak hautsi zituela zuhaitz baten kontra jotzean. Baina informazio hori jasotzearekin batera protagonistaren izaera ere ezagutzen joango da irakurlea haren gogoeten bidez eta abenturen edo gertakarien ondorioz (Alberto laguna erreskatatu behar izan zutenean, kasu).

Ilar-purea nobela hau adabaki askoz osaturiko lana dela esan dezakegu, eta lotze prozesu horretan protagonista dugu hari nagusia eta baita ospitaleko gelan dabilen eulia ere (ez da kasualitatea liburua lehenean eta azken esaldietan euliei buruzko erreferentziak agertzea). Dispersioa, sakabanaketa, sorrarazten du horrek guztiak irakurlearengan, baina, era berean, une atsegina igarotzeko aukera paregabea. Broma bat, hitz jokoren bat, aspaldiko abentura, ospitaleko gertakariak... elementu horien guztien artean lortzen baita irakurlea entretenituta eramatea liburuko hoge kapituluetan zehar amaierara.

Elisa Arguiléren irudiek, argazkigintzaren eta ilustrazioaren arteko tonua duten irudiek, ederki islatzen dute ospitaleko giro hori, denbora pasatu beharrentzako sententzia, ezer gertatzen ez denaren giroa... , ala kontu asko gertatzen dira konturatu gabe?

Xabier Etxaniz Erle



Xia Tenzinen bidaia miresgarria
PATXI ZUBIZARRETA
Ilustratzailea: JACOBO MUÑIZ
Ibaizabal, Bilbo, 2009

Bizitzaren bidaia miresgarrian

«Ipuinak liluratu du, betidanik, herritarra, bereziki miragarria delarik, misterioz beterikako mundu batera eramaten baitu entzulea» diosku Jean Haritxelharrek herri ipuinei buruz. Patxi Zubizarretaren ipuin hau, herrikoia ez izan arren, herri ipuinen antzekoa dela esan dezakegu. Egiturak, narratzeko moduak, argumentuak... herri ipuinenak direla dirudite, baina hasierako itxura horren azpian badugu lehena eta oraina batzen dituen istorioa.

Izenburuak adierazten duen bezala Xia Tenzinen bidaia bat kontatzen zaigu istorioan: «Haur denboran, aita itsasoa ikustera joan zela esan izan zieten, eta ez zela itzuli. Eta hara non orain Xia Tenzinek ere gauza bera egin nahi zuen, itsasoa ikusi eta, bide batez, aita bilatu»; eta liburua osatzen duten hamar kapituluetan bidaia horren lekukoak izango gara.

Bidaia, baina, miresgarria izateaz aparte, berezia da Xia Tenzinen izaeragatik, munduko gizonik altuena baita, eta haren bihotza bera bezain handia da. Baita igarle batek bideari ekin aurretik esandako hitzak betetzen joango

dirrelako poliki-poliki eta hutsik egin barik; eta bidaian era guztietako pertsonekin, lekuekin, giroekin topo egingo duelako Xia Tenzinek. Hots, irakurleak ez duela aspertzeko astirik izango. Igarleak adierazi bezala, bidaia gorabeheratsua izango du Xia Tenzinek, poztasunik, tristeziarik, esperantzarik... izango du, harritu egingo da... eta, igarleak ez esan arren, irribarrea eta negarra presente egongo dira.

Istorioren argumentuak harrapatu egingo gaitu; baina baita istorioa kontatzeko moduak ere. Zubizarretak ahozko literaturaren eritimoa eta kontatzeko era darabiltza, baina horren ondorioz, osagarri, idazkera poetikoa ere bai. Horren guztiaren adibide garbia ditugu liburua osatzen duten hamar kapituluaren izenburuak (hamarrak dira euri ezberdinak —edo euri ezberdinekin jolasten du idazleak—: «Tximeleta euria», «Krisal euria», «Euri berdea», «Harri euria», «Apo eta suge euria»... egoera ezberdinen ispilua). Edo herri ipuinetatik hartutako kontakizun labur eta zehatzak, narrazioan ederki txertatuak geratzen direnak eta bidaia horren kontakizun honetarako ere egokiak direnak; Indiako sei gizon itsu eta jakintsuen istorioa edo Midas erregearen aldaeratzat har daitekeen gobernadore zitalaren kontakizuna, esaterako.

Entreenigarria eta atsegina izateaz gain, liburua honek badu herri literaturatik, herri ipuinetatik. Baina, ez kontatzeko moduagatik bakarrik, baita istorioaren argumentuagatik ere. Psikoanalistek, Bettelheimek eta, aipatzen zuten herri ipuinek gizakion oinarritzko beharrei erantzuten dietela; gure barneko behar orokorrei, eta Xia Tenzinek horixe bera egiten du liburu honetan. Tibeteko gizon handi horren bidaia iniatitiko da, mundua eta bere burua deskubritzeko eta garatzeko balioko dio bidaiak, baina baita bere sakoneko kezka eta galderei erantzunak bilatzeko ere.

Xabier Etxaniz Erle



Txoriak eta habiak
 KARLOS SANTISTEBAN
 Ilustratzailea: EIDER SANTISTEBAN
 Ibaizabal, Bilbo, 2009

Txoriak ezagutzeko

«Ez duzu Maddalen ezagutzen? Nik bai». Horrela hasten da Karlos Santistebanen lan hau, irakurle inplizituari zuzenduta eta idazlearen eta irakurlearen arteko harremana aurreikusten duen esaldiarekin. Harreman hori, baina, horretan bakarrik geratzen da, hortik aurrera, hirugarren pertsona narratzaile orojakileak istorioa kontatzeari ekiten baitio.

Zazpi kapitulutan banaturiko liburu honek Maddalen neskatoaren gertakari bat kontatzen digu; hiru anekdoten ondoren neskaren berri eman eta gero, Maddalen zuhaitz batetik gora nola igotzen den agertzen zaigu. Igoera horretan aurkitzen dituen hegaztiak eta horiekin dauzkan elkarrizketak joango dira liburu kapitulu ezberdinak osatzen. Izan ere, Maddalenek herriko parkean zuhaitz ezezagun bat aurkitzen du eta, zuhaitz mota ezberdinez osaturik dagoela ikustean, bertara igotzea erabakitzen du neskatoak. Igoera horren kronika dugu, beraz, istorio hau.

Abenturazko ipuina dirudien obra baten aurrean gaude, hasierako deskribapenak —umore eta ateraldi bitxiz osaturiko anekdota interesagarriak— ipuin bizi eta umoretsu baten aurrean aurkitzearen

10 +

espektatibak sorrarazten ditu irakurlearengan, baina narrazioak oso egitura finkatua du: zuhaitz atal bakoitzean zuhaitz mota ezberdin batean aurkitzen gara, eta, bertan, hegazti ezberdin batekin mintzatuko da Maddalen. Horrela, txepetxa, okil beltza, kuku, txantxangorria... pasatuko dira gure begien aurretik. Guztien deskribapena egiten du narratzaileak, nolakoak diren, zer egiten duten... horretarako, Maddalenek ikusten duena, oroitzapenak (aitonak esaniko kontuak, kantak... kukuaren kasuan, esaterako) eta hegaztiekin izaniko elkarrizketen informazioa erabiliz. Hauen egitura ere, sarritan, antzekoa da eta txorien kritiken eta komentarioen ondorioz gogoeta egin beharrean aurkitzen da Maddalen: gure bizimoduaz, gizakiok sorraraziko kalteez, dugun jokabideaz...

Maddalenek kukuari leporatzen dio besteen habietan uzten dituela arrautzak eta oso ankerra direla kuku-umeak, habiako gainerako arrautzak edo umeak kanpora botatzen dituztelako; baina, kukuaren erantzuna entzun ondoren, neskak gauzak ez direla hain zuri-beltz ikusi behar ondorioztatzen du.

Txoriak eta habiak liburu hau oso erraz irakurtzen da eta anekdota edo istorio ugari osaturik dago, baina ez du irakurlearen parte hartzerik bultzatzen. Dena kontatzen da, dena dago garbi azalduta, ez dago «hutsunerik» Iser-en terminoa erabiliz. Are gehiago, uste dut amaiera kenduta —irakurlea harrituko duena eta ukitu fantastikoa ematen diona narrazioari—, gainerako gutzia hegaztien inguruko informazio liburu batetik hurbilago dagoela ipuin batetik baino. Ziur gaude irakurleak asko ikasiko duela txoriei buruz; are gehiago, kontakteta era entretenigarri eta originalean dagoela kontuan izanik, gustura irakurriko den testu baten aurrean gaudela esan dezakegu. Baina ni neu ez nau bete.

Xabier Etxaniz Erle



Egun bat Petre Romanescuren bizitzan
 XABIER MENDIGUREN ELIZEGI
 Ilustratzailea: MANU ORTEGA
 Erein, Donostia, 2009

Errealismo errumaniarra

Egun bat Petre Romanescuren bizitzan izeneko ipuinari esker Xabier Mendiguren Elizegi editore eta idazleak bigarren aldiz Zarauzko Lizardi saria irabazi du, 1988an «Montse-txikiren azio handiak» delakoarekin nagusitu ondoren. Eta, azken urteotako ohitura berriari jarraituz, irabazlea aldarrikatzearekin batera aurkeztu da liburuaren edizioa.

Tituluak Alexander Solzhenitsyn-en «Egun bat Ivan Denisovich-en bizitzan» gulag-eko bizimoduari buruzko eleberri laburraren oihartzunak omen dituen arren, *Egun bat Petre Romanescuren bizitzan* haur literatura oso ohikoa den «eskolarako idazlanaren» aitzakiarekin idatzita dago. Haatik, Petreri ez zaio idaztea asko gustatzen, eta nahiago du eguneko gorabeherak azken urtebetetzean oparitu dioten bideo-kameraren bitartez jasotzea. Edonola ere, liburu osoa duen testua idatzizkoa zein mintzatua izan, mardul-mardula eta biribil-biribila atera zaio lehen pertsona kontatzen digun Petre gazteari.


Kontuak kontu, errumaniar familia osoarekin jarotako egun bat kontatzen digute Petrerren kamerak eta ahotsak zuzen-zuzenean, gauzak

gertatzen ari diren uanean bertan. Furgonetan sartu, eta mendira abiatu dira piknika egingo duten tokiaren bila. Petreraren jardunean nahastu egiten dira gertakizunen narrazioa eta zinemako kontu teknikoaren azalpenak (flash-back, elipsia...), eta bietan antzematen zaio narratzaile sena. Kamerak jasotzen duenaren arabera, familiako helduek askotariko lanbideak dituzte: igeltseroa, tabernaria, argiketaria, txapista... eta, ustekabean, Petre Romanescuc «Kraiovakoko Beltza»rekin zerikusia duen harreman ilun bat jaso du, eta konturatu da familiako kide batzuk aztoratuta dabiltzala horregatik. Une horretan etorri da ospakizuna hankaz gora jarri duen gertaera... eta hori ere kamera berriarekin jasotzea lortu du Petre trebeak, era ezin bitxiagoan izan bada ere.

Liburuak, bistan denez, errumaniar etorkin batzuen bizimoduaren berri ematen du, haien pozak eta arazoak kontatzen ditu, eta horrekin bat egiten du Lizardi lehiaketan saritu ohi diren gai sozialeko beste haur obra askorekin.

Ez dakigu nolako nota jarriko zioten eskolan Petre Romanescuc lan horregatik, baina Xabier Mendigureni notarik onena jarri diote. Zorionak.

Manu Lopez Gaseni



Ez ezkondu, aita!

FINA CASALDERREY

Itzultzailea: JUAN MARTIN ELEXPURU

Donostia, Elkar, 2009

Elektra

Blanca-Ana Roig Rechou irakaslea, Galiziako haur eta gazte literaturaz eginiko azterketa berri batean, Fina Casalderreyz aritu zen; horren idazkera poetikoa eta protagonistarekiko identifikazioa aipatzen zituen ezaugarri nagusien artean. Baina bada beste bat, gaiari dagokionez, aztertzen ari garen liburu honekin zerikusi handia duena: familia barruko egoerak islatu nahia, alegia. Adopta dezaten eskatzen duen aitona kontua eskaini zigun duela urte batzuk idazle galiziar honek, baita etxean txakur bat izateak dakartzan ondorioak ere... orainoan, aldiz, izenburuak berak adierazten duen bezala, aita baten eta haren alabaren arteko kontuak azaltzen zaizkigu.


Ez ezkondu, aita! liburu ospitalean dagoen neskato baten ikuspuntutik abiatzen da. Elia ingresaturik dago ospitalean eta hasieratik adierazten digu bere egoera: «Duela gutxira arte zoragarri geunden, baina arazo handi bat sortu zait, eta ez dakit nola konpondu». (9. or.). Irakurleak bi narratzaile aurkitzen ditu kontakizunean: Elia, lehen pertsona erabiliz, eta hirugarren pertsonaren bidezkoa narratzaile

orokilea. Bi narratzaile horiek tartekatzen dira Eliaren historia ezagut dezagun eta, aldi berean, protagonistarekiko identifikazioa izan dezagun, gertakariak ikuspegitik azalduko baitzaizkigu zenbait kasutan.

Eliaren egoera ulertzeko, iragana eta orainaldiaren arteko joan-etorriak izango ditugu, ospitaleko egonaldiarekin batera Eliaren ama hilez gero hauen bizitza nola joan den aldatzen ikusi ahalko dugu. Neba txikiaren erditu ondoren etxerako bidean auto istripua izan zuten gurasoek eta ama hil. Harrezkero, Eliak ez du emakumezkoik onartu etxean. Egoera, baina, guztiz okertzen zaio aita maitemindu eta beste emakume batekin ateratzen hasten denean.

Casalderreyk Eliaren historia kontatzeko bi narratzaile erabiltzen ditu, arestian aipatu bezala, eta narrazioa lau ataletan banatzen du (lehen 14 kapituluz osaturik, luzeena; eta azkena, 3 bakarrik dituen, laburrena) egun bakar bateko kontakizuna biltzeko. Jakina, istorioak ez du erritmo bera denbora guztian, 175 orrietan gertakari eta gogoeta ugari biltzen dira: lehenak «arazo handia» ulertzen laguntzeko, eta ondoren, batik bat hirugarren eta laugarren ataletan, arazoaren korapiloa askatzen laguntzeko. Baina modu batean edo bestean, darabilen egituragatik eta narrazioaren erritmoagatik, idazleak berriro erakutsi digu irakurlea harrapatzeko duen gaitasuna, istorioak kontatzeko duen abilezia.

Xabier Etxaniz Erla



Itsasoko loti ederra
XABIER MENDIGUREN ELIZEGI
Ilustratzailea: JOSE BELMONTE
Elkar, Donostia, 2009

Iratxo izorratzaileaz eta

Liburuaren izenburuari erreparatuta, irakurleak, antzinako ipuinaren oihartzuntzat hartuko du orain eskaintzen zaion lana. Basoan izan beharrean, baina, itsasoan kokaturik dugu istorioa eta horrek transtestualitatearen aurrean jartzen gaitu. Istorio berria irakurtzeko parada izango dugu. Eta honetaz hitz egin dugunean esan bezala, aukera berri honek istorio modernoak egiteko aukera eskaintzen digu. Ez bakarrik argumentuaren aldetik, baita egitura edo ideologia den aldetik ere.

Itsasoko loti ederra istorio hau irakurtzen hasi eta berehala konturatuko gara liburuak duen berrikuntza handienetarikoz batez: idazlearen eta haren «barne mintzoa» kritikak, komentarioak egin eta adarra jotzen diona —Atxagaren terminoa erabiliz— edo iratxoaren arteko elkarrizketak. Lehenengo orrialdetik bertatik ageri zaigu, narrazioaz aparte, idazlearen eta iratxoaren arteko kalapita hori, eta tradizioko istorioan, narratzailearen tonuan, ideologian, eta abarretan bere ekarpen, kritika eta komentarioak —askotan ironikoak— egingo ditu iratxoak: «*Idazlea* diozu, ahoa beteta. Gauza handia balitz bezala», (5. or.), edo «Ederki kostatu zaizu honaino iristea.

Zenbat jira eta bira, hasieratik genekien tokira iristeko!» (159. or.).

Iratxo horren ekarpenen kontra (edo hauetaz osatuta) idazleak «ipuin tradizional bat» idatzi nahi du; eta itxura batean Mendigurenek, istorio tradizioaletako elementuak erabiliz, horrelakoa egiten duela ematen badu ere, *Itsasoko loti ederra* honek irakurketa modernoa eta gaurkoa eskaintzen digu. Abenturazko liburua da, klasikoak alde horretatik, eta erraz irakurtzen da —eta honetan, agian, lagun dezake obrak duen zatiketa, liburua osatzen duten 50 kapituluek hiruzpalau orri betetzen dituzte eta—. Alde horretatik, oso entretenigarria eta bizia da kontakizuna, gertakariak beteak eta idazlearen eta iratxoaren arteko elkarrizketez osatuta. Ekarpenean horietan istorioaren inguruko gogoeta egiteaz gain (ugari dira komentarioak tradizioaz, ideologiaz...), badira literatura aldetik irakurlea hezteko edo laguntzeko komentarioak (zer den elipsia, esaterako, eta baita zeharka eginiko aipamenak ere, «Kirmen Uriberen Portukoplak», 16. or., edo Markesaren alabaz eginiko komentarioa, 61. or., esaterako); horrek, jakina, balio erantsi bat ematen dio ustez istorio tradizionala den honi. Ustez diogu, honelako istorio klasikoetan ez baita ohikoa ondorengo komentarioa irakurtzea: «*Infidelitate* kontzeptua bera nahiko atzerakoia da. Maite duenak, bestalde, barkatzen ere badaki». (84. or.).

Aipaturiko guztiagatik *Itsasoko loti ederra* oso liburu interesgarria da, bitxia eta aparta gure artean eta haur eta gazte literaturan. Hala ere, badu handicap bat: gure artean gero eta zailagoa da gazteak istorio klasikoetara erakartzea. Ea liburu honek horretarako balio duen!

Xabier Etxaniz Erle



Neure neure esklaboa
DOLF VERROEN
Itzulpena: JOSEBA SARRIONANDIA
Elkar, Donostia, 2009

Eguneroko izugarrikeriak

Dolf Verroen (1928) idazle holandarra literaturaren arlo asko landutakoa da, hala nola haur eta gazte literatura, kritika, itzulpena... Hala ere, *Neure neure esklaboa* hauxe da euskarara (eta are gaztelaniara «*Que blanca más bonita soy*» izenburupean) itzuli zaion titulu bakarra. Liburuak sari garrantzitsuak jaso ditu: «Deutscher Jugendliteraturpreis 2006» eta «Gustav-Heinemann-Friedenspreis für Kinder- und Jugendbücher» direlakoak.

Liburuaren gaia esklabotasuna da. Denboran zein espazioan non kokatzen den adierazten ez den arren, oso litekeena da ekingiza Surinamen (Holandar Guaiana) eta XIX. mendean girotua izatea; horrelako zerbait ondoriozta daiteke amaieran jarritako «Hitzen atzea» delako azalpenean; hala ere, bertan adierazten denez, «istorioko jende guztia asmatua da, baina, non ez jakin arren, kontaktzen den guztia gertatu zen».

Neure neure esklaboa berrogei atal laburretan kontatuta dago. Aurretik beste liburuaren batean ikusitako «molde horrek txunditu egin ninduen eta berehala, besterik gabe, goizean idazmahaiaren aurrean eseri eta Mariaren istorioa sortu zen»,

diosku idazleak arestian aipatutako «Hitzen atzea»n.

Eta, hain zuzen ere, Maria protagonistak hamabi urte betetzen dituen egunean hasten da istorioa. Hara non, urtebetetzeko beste opari askoren artean, aitak ume esklabo txiki bat oparitu dion. Opari eder horren osagarri, izeba batek zigorzartailu bat ere erregalatu dio.

Narrazioa lehen pertsona kontatua dago, Mariaren ahotik, eta aukeratutako ahots nerabe hori ederki uztartzen da atal laburretako egiturarekin. Hala, Mariaren kontakizunaren bitartez izango dugu esklabo beltzez inguratutako familia zuri aberats baten bizimoduaren berri: etxeko tertuliak, beltzei buruzko aurreiritziak, te-plantzioetako lanak, esklaboen salerosketa, esklaboen eta nagusien arteko sexu-harremanak, eta abar.


Guztiarekin ere, liburuan ez dago kritika espliziturik. Liburuak erakutsi egiten du, soilik; Mariaren ahotsak horren guztiaren berri ematen du, hamabi urteko neska baten xalotasunez, tarteka emakume bihurtzeko ereduena bila dabilela. Gainerako lana irakurlearena da, noski, Afrikatik Ameriketara eramandako esklaboen inguruko izugarrikeriak begien aurrean izanda. Alde horretatik, Agota Kristof-en *Koademo handia* edo John Boyne-ren *Pijama marradunaz jantzitako mutikoa* ekartzen ditu gogora, antzeko teknika darabilten neurrian.

«Hitzen atzea» delakoan ere ez dago salaketarik, ez eta ipuinen amaierako asmo didaktiko-moralik. Gorabehera biografiko batzuk emateko eta idazlana testuinguruan kokatzeko erabili da, besterik ez. Eta oso argigarria da, bere laburrean.

Honelako iruzkinetan itzultzailearen lanaz hitz batzuk esan behar badira, areago hain itzultzaile ezohikoa den Joseba Sarrionandia idazlearen aurrean egonik. Sarrionandiak badu eskarmenturik itzultzaile gisa, noski, batez ere poesiaren alorrean (Eliot, Coleridge, Bandeira; ahaztu gabe «Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak» hura). Narratibaren eremuan ere badu itzulpenen bat, baina okerrik ezean hauxe da haur literaturan egindako lehen itzulpen-lana. Bada, lan honetan, nabarduraren bat edo beste kenduta, ez zaio bestetan bezainbeste antzematen ohiko estiloa (lexiko aukeraketa, sintaxia). Haur literaturak oso lege estuak dituelako izango da...

M. L.G.

14 +



Violet Park-en bidetik
JENNY VALENTINE

Itzultzailea: IÑIGO ERRASTI
Alberdania, Donostia, 2008

Erraustak bidelagun

Violet Park hilik dago eta haren erraustak gordetzen dituen kutzak hemezortzi hilabete baino gehiago daramatza taxi bulego bateko apalategian abandonaturik. Norbaitek taxi batean ahaztuta utzi zuenetik, hain zuzen. Baina egun batean, kasualitatez, hamasei urteko Lucas Swain londrestarrak begiz joko du kutxa eta erraustak bereganatzeko bulkada sentituko du. Egun batzuk geroago eta amonarekin prestaturiko azpijoko bati esker, Lucasek beretzat hartuko du Violet gordetzen duen erraustak kutxa, bien arteko halako lotura berezi bati hasiera emanaz. Lotura hori, ordea, are bereziagoa bilakatuko da Lucas protagonistak jakiten duenean Violet Park zenak eta bere aitak, zeinak urte batzuk aurrerago emaztea eta hiru seme-alabak abandonatu zituen (txikiena artean jaio gabe zegoela) elkar ezagutzen zutela. Azalpenik gabe desagerturikoa eta ezustean agerturikoa elkarren osagarri bihurturik.

Baina hori Jenny Valentine idazle britainiarraren *Violet Park-en bidetik* liburuaren hasiera besterik

ez da, gertaerak eta egoerak bitxiki korapilatzen baitira orriek aurrera egiten duten neurrian. Bereziak dira, nolabait, kontakizuna eten eta protagonista narratzaileak txertatzen dituen bestelako kontamolde-teknikak ere: zerrendak, asmakeriak, eszena batetik abiatuta bere familia-kideen deskribapen osatu eta egokiak, kausa eta ondorioen arteko erreakzio kateen aukera guztiak. Gainera, guztia modu ez hain inozentean kontatua; arrea edo amarekin dituen harreman gatazkatsuak, kasu. Azken batean, nerabezeroaren azken urratsak ematen ari eta ondorioz, helduaroaren aurreneko pausoak ematen ikasten ari delako Lucas, eta, horretarako, ezinbestekoa du aitaren gertaera bere horretan ulertzea. Ulertzeko, baina, aurrena, zer gertatu zen jakin behar. Harrigarriki, Violet Parken erraustean laguntza beharrezkoa izango da bide luze horretan. Une jakin batean gogoeta hau egingo du Lucasek, liburuan jasaten duen inimizio-garapenaren adierazle: «Horixe da, itxura denez, hasten garenean egiten duguna: nahiko ez genukeen gauzei aurre egin eta onartu inor ez dela izaten guk uste dugun modukoa, askotan ezta antzekoa ere».

Garzten artean arrakasta izan dezakeen liburu batek izan ditzakeen osagai guztiak biltzen dira 2007an Guardian Children's Fiction saria jaso zuen *Violet park-en bidetik* horretan: gaur egun gori-gorian dauden gaiak (adopzioa, eutanasia...); familia-arazo gatazkatsuak (guraso eta seme-alaben artekoak bereziki); lehenengo amodioa (narrazioan pisu gehiegirik ez badu ere), intriga, umorea, argumentuaren bilakaera ustekabeak eta, nola ez, apoteosikoa izan gabe ere, filmetako amaierari asko zor dien bukaera. Eta, hain zuzen, osagai horiek guztiarekin bete-betean asmatzea da liburu hau, gazteentzat soilik ez, baizik eta edozein irakurlerentzat gomendagarria izatearen arrazoi nagusia.

Mikel Ayerbe



Hilketa lokartua
AGATHA CHRISTIE
Itzultzailea: XABIER ARISTIGIETA
Igel, Iruñea, 2008

Hiltzaileak aukeran

Gazteagotan gogoko nuen «Cluedo» —ingelesez *clue* hitzak *aztarna* esan nahi du— mahai-jokoan jolastea. Arauak errazak dira: hilketa bat jazo da etxe batean eta parte-hartzaileek, aztarnei jarraituz, hilketa zehazki non (zein gelatan), nola (zein armarekin) eta nork burutu duen asmatu behar dute. Zoritxarrez, gazteagotan ez nuen Agatha Christieren nobelarik irakurri eta agian, horregatik, Igel argitaletxeak itzuli duen *Hilketa lokartua* liburuaren irakurketak bete-betean harrapatu nau. Aipaturiko jokoan gertatzen den bezala, liburu horren hasieran ere ez daude oso argi hilketaren inguruko gorabeherak, eta azken unera arte ez dugu jakingo nor den *benetako* hiltzailea eta hilketaren arrazoi nagusiak.

Hilketa lokartua nobela, 1976an argitaratu bazen ere, 1940. urte inguruan idatzi zuen Christiek, nahiz eta bera hil arte ez zuen argitaratu nahi izan (idazleak sortutako Hercules Poirot pertsonaia famatuaren azken liburuarekin egin bezala). Hain zuzen, Marple andereñoaren azken kasua biltzen da nobelan. Christieren beste


hamahiru liburutan agertutako pertsonaia hau —«neskazahar adinekoa, buruargia, sudurluzea eta oso bizia»— oraingoan ere bigarren mailan kokatuko da eta apurka-apurka protagonismoa bereganatzen joango.

Bilbeari dagokionez, Gwenda Reedek eta bere senarrak duela hemezortzi urte jazotako hilketa lokartua argitu beharko dute: Gwendaren amaordea etxeko atarian ito zutenekoa, hain zuzen. Nobelaren hasiera ezin erakargarriagoa da, hilketaren aztarna nagusia Gwendak erositako etxe berrian izaten dituen eldarnioen edo oroitzapenen bidez azaleratuko baita. Eta, nola ez, Marple andereñoaren zuhurtziarik gabe, nekez argituko da hemezortzi urtez lo egon den hilketa.

Nabaria da «hilketaren erregina»ren zigilua liburuan, hasierako gertakizunetatik abiatuta egoerak are gehiago korapilatuz (hilketa eszenaren xehetasunak, pertsonaien arteko harremanak...) eta hiltzaile susmagarrien abanikoa zabalitzen joango direlako orriak aurrera egin ahala: suspensea, tentsioa, ezusteak eta bilbearen garapena ezin hobeki dosifikatuak daude.

Xabier Aristigieta arduratu da *Hilketa Lokartuaren* itzulpenaz. Igel argitaletxeak irmo eta koherentzia literario finez jarraitzen du euskaraz nazioarteko «best-sellerrak» kaleratzen, kalitatezko liburu irakurterazak eta entretenigarriak adin guztietako irakurleei eskainiz. Izan ere, *Hilketa lokartuarekin* batera kaleratu du Igelak Itziar Diez de Ultzurrunek itzuli duen Agatha Christieren *Bikarioetxeko hilketa*, zeinetan Marple andereñoa aurrenekoz aurkeztearekin batera, bere aurreneko kasua argitu behar izango duen.

Mikel Ayerbe



Hobbita
J.R.R. TOLKIEN
Itzultzaileak: SERGIO IBARROLA eta XABIER OLARRA
Igel, Iruñea, 2008

Ur handiak, ez bairik gabe: ez gaude haurrentzat edo gazteentzat diseinatutako edozein produktu erdi-didaktiko edo politikoki zuzenaren aurrean, nahiz eta halakotzat jo daitezkeen antzeko askok —gehiegik, akaso— liburu honetan daukaten iturburu, J.R.R. Tolkien (Bloemfontein, 1892-Oxford, 1973) beraren *Eraztunen jauna* trilogia famatuan bezainbeste: ez dezagun ahaztu hau dela, Tolkienen kide eta adiskide izandako C.S. Lewis oxfordtarraren lanekin batera, *sword & sorcery* («ezpata eta sorginkeria») azpigeno modernoaren sortzailea edo, apalagoak izan nahi badugu, gutxienez suspertzailea (bide batez esanda: noizko Lewisen *Narniako* saila euskaraz?).

Hobbita, askotan, *Eraztunen jaunaren* nolabaiteko «pre-kuelatzat» hartzen den arren —izan ere, horren gaineko «behin betiko» filma bera ere oraintxe ari da errodutzen Guillermo del Toro, Peter Jacksonen *Eraztunen jaunaren* bertsiorekin famatuaren arrakastaren ondoren—, gogoan hartu behar da Tolkienen lehenago idatzi eta argitaratu

zuela, 1937an hain zuzen ere, nahiz eta unibertso mitiko zabalago baten parte izan hasiera batetik; edonola ere, idazleak ez zuen *Eraztunen jauna* erraldoiaren lehenengo liburukia argitaratu 1954ra arte: *Hobbitalaren* ezusteko arrakasta izan zen trilogiaren idazketara bultzatu zuena, hain juxtu. Beraz, honela gutxitan egiten den arren, irakurketaren sekuentzia logikoa, hala historikoki nola kontakizunaren barne-logikaren ikuspuntutik, horixe izan beharko litzateke: lehenengo *Hobbita*, eta ondoren trilogia osatzen duten hiru aleak —*Eraztunaren elkarte*, *Bi dorreak* eta *Erregearen itzulera*, euskaraz Txalaparta argitaletxeak kaleratu zituenak duela urte batzuk—.

Egia da, bestalde, intentzioaren aldetik lan biak ez direla guztiz parekarriak, *Hobbita* irakurle gazteagoentzat baitago idatzita, jatorrian, *Eraztunen jaunak* publiko heldu(ago) bat jomuga zuen bitartean. Alde horretatik, *Hobbita* bigarren lanaren bertso sinpleago —eta laburtuago— bat lirudike, batzuetan. Izan ere, biak dira bilaketa baten narrazioak: Smaug herensugeak Mendi Bakartian zaindutako altxorrena, *Hobbita*; Eraztun Bakarraren sunsipenarena, *Eraztunen jauna*. Bestalde, gertakari batzuk oso antzekoak dira batean zein bestean: Rivendel arteko bidaia eta Rivendeleko egonaldia bera, noski, baina liburu honetako Mendi Lainotsuen lurrazpiko ibilerak eta *Eraztunen jaunako* Moriako episodioak berdintsuak dira, orobat, bi lanen amaiera aldeko batailak edo Gandalf aztiaren rola bezalatsu. Eta biak dira, azken batean, nolabaiteko *Bildungsromanak*, hots, heziketa-nobelak: Frodorenaz eta, oro har, harekin batera doazen hiru hobbitenaz aritzen da *Eraztunen jauna*, eta Frodoren osaba Bilborena kontaktzen digu esku artean dugunak; berez lasaitasuna eta olgeta maite duten hobbitak, biziko dituzten arriskuei ahal duten moduan aurre eginez, adiskidetasunaren benetako esanahia ulertu ez ezik, *heldu* egingo dira pertsona moduan, eta jakintsuago —eta zuhurrago— itzuliko dira haien jaioterrira. Baina, gauzak zer diren, publiko printzipioz ezberdinarentzat idatzi baziren ere, denborak berdindu ditu lan biak, nolabait: *Eraztunen jaunak* ia berehala gaztetxoaren arreta bereganatu zuen bezala, *Hobbitak* ere irakurle helduagoengan piztu zuen interesa, argitaratu ondoren.

Tolkienek asmatutako mundua —Erdialdeko

Lurraldea eta bere historia guztia, *Silmarillion* lan amaitu gabeen laburbildu zuena— biziki konplexua zen, eta ondo sustraituta zegoen erdi aroko literaturaz eta iparraldeko sages zeukan ezagutza sakonean: ez alferrik anglosaxoniarrerako eta antzinako ingeles literaturako irakaslea izan zen Oxforden. Baina erudizio hori, atzean dagoen arren, ez da bere fikziozko kontakizunetan zuzenean islatzen: erdi-ekzutuan dago, berme bezala, baina narrazioari traba egin gabe; izan ere, narrazioa aparta da Tolkien, eta liburuaren interesak, irakurlearen hasieratik harrapatuz gero, ez du behera egiten —beste kontu bat da liburuaren generoa gustuko ez duen irakurle baten eskutian erori ezke, noski—. Alde horretatik, *Hobbita* irakurketa biziagoa suertatzen da, ziurrenik, *Eraztunen jauna* baino, eta badauka, nire ustez, bertute handi bat azken horrekin konparatuta, istorio nagusiaren hasiera zein den xeheki azaltzeaz gain: umore gehiago dauka *Hobbitak*, trufariagoa da, askoz ere serioagoa eta ilunagoa den trilogiarekin konparatuta.

Bref: bere kabuz oso baliotsua izango litzatekeen abenturazko eta fantasiako nobela bat, magia, ezpata-borrokez, munstroz eta altxorrez betea, baina zeinaren jarraipenak —*Eraztunen jauna*— handiago eta, paradoxikoki, ikusezinoago bihurtu baitzuen, autonomia literario asko galdarazi zion zerbait. Eta irudipena daukat halako itzulpen batek balio dezakeela autonomia hori berreskura dezan, hein batean behintzat. Are gehiago kontuan hartuta liburu honen gaineko filma, efektu berezi ikusgarrienez hornituta etorriko dena, ez dela 2011ra arte estreinatuko: oraintxe adoretu beharko genituzke gure seme-alabak eta ikasleak —eta, zergatik ez, baita geure buruak ere— lan hau irakurtzeko, euskaraz gainera, irudiak guztiz irentsi dezan baino lehenago —*Eraztunen jauna* liburuari gertatu zaiola susmatzen dudana bezala, Peter Jacksonen aipatu pelikula hirukoitzaren kariaz alegia—.

Alde horretatik, uste dut zinez eskertzekoa dela Igela argitaletxearen ahalegina, klasiko hau guregana hurbiltzeko, Sergio Ibarrola eta Xabier Olarraren itzulpen-lana bezala, beti bezain eraginkorra eta argia.

Edizioari, hala ere, «baina» txiki bat ipini behar

diot, itzulpenari dagokiona hein batean. Eta hauxe da: ez dut ulertzen zergatik itzultzaileek ez dituzten aurretik egindako lanaren «eskala ekonomiak» aprobetxatu eta Xabier Otsoa Eribekok *Eraztunen jaunaren* itzulpenean egindako aurkikuntzak hemen islatzen. Adibide sinple batekin azalduko dut: familia protagonistaren abizena, «Baggins» ingelesez, «Zorrozabal» bezala itzultzen zuen, nire ustez nahiko burutsuki, Otsoa Eribekok, Tolkienen obrak hizkuntza gehienetara izan duen adaptazio-joerei jarraiki, toponimo eta antroponimo asko «itzuliz» alegia. Egia da frantsesezko eta italierazko bertsiotan, adibidez, «Baggins» abizena bere horretan uzten dela —adierazkortasunaren kaltean, nire ustez—, baina beste hizkuntza gehienetan nolabaiteko egokitzapen bat egiten da: hala, gaztelaniaz Bilbo Baggins «Bilbo Bolsón» da, alemanez «Bilbo Beitin», portugesez «Bilbo Bolseiro» —«Bulseiro» galegoz—, katalanez «Bilbo Saquet», suedieraz «Bilbo Bagger», eta abar. Bestalde, *Eraztunen jauna* «nano» deitzen zirenak, «ipotx» dira hemen: bata zein bestea ingelesezko «dwarf»-en itzulpen zuzenak dira, baina aurreko itzulpenean «nano» hautatu zenez, ez al zen logikoa hemen berdin egitea? Ez dut ulertzen, ezta ere, zergatik ingelesezko jatorrizkoaren «goblin» delakoak —*Eraztunen jaunaren* «orko» bezala izendatzen direnak, baina lehenengo liburu honen hurrengo berrargitalpenetan izendapen orokorrigo edo tradizionalago horren pean mantendu zituenak Tolkienek— bere horretan uzten diren, hots, ingelesez, «orko»ra aldatu gabe —italieraz egin omen den bezala— edo «goblin» horren ordain jatorriago bat bilatu ordez, euskaraz «iraxko» izan zitekeena —gaztelaniaz «trasgo» ematen dute, frantsesez «gobelin», suedieraz «vätte»...—. Ez dira adibide bakarrak, edonola ere. Baina niretzat garrantzitsuen dena: «Baggins» hautatzeak logika bat izan dezakeela onartuta ere, ez al zen eraginkorrago izango, euskal irakurle gaixoari begira, *jadantik* eginda zegoen hautua kontuan hartzea, eta «Zorrozabal» bezala uztea? Eta berdin jokatzeko gainontzeko nomenklaturarekin? Euskal irakurle, berez, nahikoa errefraktarioa da itzulpenen aurrean, edo hori iruditzen zait niri behintzat, eta hari —batez ere gaztetxo bada— oztopo bat gehiago ipintzea, txikia bada ere, ez dut uste onerako denik.

Gauza bera esan daiteke liburuan agertzen diren mapei buruz, azpigenere honetako irakurleentzat liluragarriak izan ohi direnak –gaztetako esperientzia propioaz dakit: orduak pasa izan nituen Minotauroko edizioaren Erdiko Lurraldeko mapa tolesgarriari begira—: ba al du justifikaziorik, gaur egun, ingeles hutsez mantentzeak? Nik esango nuke ezetz.

Txikikeriak dira, badakit, liburu eder honen eresketa eta irakurketa biziki gomendatzen jarraitzeko inolako arazorik sortzen ez dizkidanak. Baina, aldi berean, edizioa guztiz biribila izateko traba direnak, nire uste apalean.

Iban Zaldua



Gose jokoak
 SUZANNE COLLINS
 Itultzailea: KORO NAVARRO
 Alberdania, Donostia, 2009

Ogia eta zirkua

Demagun etorkizun hurbilean Iparramerikan hondamendi handi bat gertatu eta orain Panem deritzon nazioa 12 barrutitan banatzen dela. Hamaika gerren ondoren, Kapitolioa nagusitu egin zaie gainerako barrutiei eta, ordainetan, Kapitolioaren aginpide tiranikoaren mende bizi dira beste barrutietako biztanle guztiak. Horren adierazgarri dira urtero antolatzen diren *Gose Jokoak*: zozketa bidez barruti bakoitzetik bina neska-mutil aukeratzen dituzte ondoren Kapitolioari tributu gisa eskaintzeko; 24 gazteak borroka esparru jakin batera eraman eta bata bestearen aurka heriotzaraino borrokatzera behartzen dituzte, irabazle bakar bat izan arte. Guztia *reality show* bat balitz bezala telebistan erretransmitituz. Izan ere, Gose Jokoen bidez Kapitolioak bere nagusitasuna erakutsi nahi du, antzinako Erroman Koliseoko hondar gainean egin bezala, indarkeria eta ankerkeria jolas gisa mozorrotuta.


Horixe da, gutxi gorabehera, Suzanne Collins estatubatuarren *Gose Jokoak* liburuaren planteamendua. Utopia guztien aurkako den

distopia horretan kokatzen baita liburuko Katniss hamasei urteko protagonista. Eta haren ahizpa txikiari Gose Jokoetan parte hartzea egokitzen zaionean, Katnissek bere burua eskainiko du hamabigarren barrutiko neska tributu gisa. Hortik aurrera ez dago atzera bueltarik, eta etxera itzuli eta ahizpa, ama edo Gale lagun mina berriro ikusi nahi baditu, badaki Gose Jokoetako gainerako tributuak hil beharko dituela. Gainera, ezin ahaztu *Gose Jokoak* telebistako ikuskizun ere badirela, eta Katnissek men egin beharko die espektakulua inguratzen duten parafernalia guztiei, baita bere barrutiko Peeta tributuarekin itxuraz mantenduko duen balizko maitasun istorioari ere.

Izatez, *Gose Jokoak* liburuko argumentuaren planteamendu nagusia ez da oso originala eta, aurrekari gisa *Battle Royale* nobela japoniarra (edo zinemara eginiko egokitzapena) aipa daiteke. Suzanne Collinsen lorpen nabarmenena etorkizun hurbilean giroturiko istorioaz baliatuz egungo gizarteari egiten dion kritika litzateke (zeina justuki zientzia fikzioaren generoko lan esanguratsuen ezaugarrietako bat den). Bestalde, kontakizun guztia lehenengo pertsonan narratzeak protagonistaren azalean sartu eta gertaerak hurbilagozik bizitzera eramango du irakurlea.

Gazteengan irakurzaletasuna pizteko liburu egokiak falta direla gurean esan izan da, *best seller* gutxiegi ditugula eta ditugunak nazioarteko arrakastaren ondoren iristen direla. Gauzak aldatzen ari diren honetan, Alberdania argitaletxeak apustu argia egin du. Izan ere, inpresioa dut denborarekin *Gose Jokoak* lanak nazioartean zeresan gehiago ekarri eta arrakasta iturri bihurtuko dela. Horren erakusle izan daiteke hizpide dugun liburuan oinarrituz datorren urtean estreinatuko den filma. Baina arrakasta uholde hori iritsi aurretik, jadanik euskaraz irakur dezakegu *Gose Jokoak* liburua.

Mikel Ayerbe



Wendyk hegan ikasi zuen gaua

ANDREU MARTIN

Itzultzailea: MIREN ARTETXE

Elkar, Donostia, 2009

Gaeko hegaldi arrisksua

Andreu Martin (Bartzelona, 1949) idazle katalana aski ezaguna da gure artean, Jaume Riberekin batera *Ez eskatu sardinarik sasoiz kanpo* gazteentzako polizi eleberria idatzi zuenetik. Flanagan batxillergo adineko detektibearen inguruan 1988an idatzitako haren ondoren beste asko etorriko ziren, horietarik batzuk euskaratuta ere bai: *Postariak beti deitzen du mila aldiz*, *Detektibe guztiak Flanagan dira*, *Ez garbitu eskuak*, Flanagan, eta abar. Urteak aurrera joan ahala, Andreu Martin bakarrik argitaratzen hasi zen, eta 2006an argitaratutako *La nit que Wendy va aprendre a volar* honekin Wendy Aguilar pertsonaia lantzen hasi zen.

Wendyk hegan ikasi zuen gaua honetan jadanik ez dago neraberik, eta oraingo pertsonaia gehienak heldu gazteak dira. Wendy protagonista, esaterako, hogeita hiru urteko «mossa d'esquadra» bat da Bartzelonan, eta patruilari gisa lan egiten du.

Hain zuzen ere Wendyk hogeita hiru urte bete behar zituen gauean gertatzen da liburu honetako istorioa. Patruila-autoko lagunarekin zihoala, tiroketa baten berri ematen zuen dei bat jaso zuen. Hiriko dirudun bat erail zuten etxe aurrean, oso ondo gordeta zeukan altxor

14 +

bat lapurtzeko. Ustezko lekuko baten atzetik hasi zela, Wendyk beste poliziekiko kontakua galdu, eta gau osoa «desagertuta» eman zuen. Benetan gertatu zitzaiona, ordea, amesgaizto bat baino okerragoa izan zen: metroak ia harrapatu zuen, jipoitu zuten, itsas hondora bota zuten... harik eta mataza korapilatsu bat askatuz kasua argitzea lortu zuen arte.

Ekintza beteko liburua da, eta azkartasun sentsazioa areagotu egiten da gertakariet atxikitako kontaktari esker, orainaldian egina. Beste muturrean, Andreu Martinen narratzaile-ahalezia ezagututa, irakurleari oso deserosoa egiten zaio narratzaile orojakile hain kontakatilu eta deskribatzailearen erabilpena, areago kontuan hartuta generoaren «legearen» aurkako erabakia dela. Baina erabaki hori hartu badu, arrazoiaren bat izango zuen, noski; eta kasu honetan irakurlea bereganatzeko estrategia izan daiteke, etengabe pertsonaiek baino gehiago dakielako sentsazioa helarazita.


Eleberriak, aurreko liburu gehienek bezala, generoaren parodia kutsu nabarmena dauka, eta irribarrea ezpainetan irakurtzen da (baina litekeena da irakurtzeko eskarmentu oso gutxiko norbaitek serio hartzea), eta umorezko ateraldiez josita dago, titulutik hasi eta amaierako txisteraino. Irakurle mota hori sarreratzeko, gainera, *Da Vinci Kodea* liburuko erreferentziak erabiltzen ditu eta, oro har, masoneriaren inguruko elezaharrak ere bai.

Atera dudana inpresio orokorra azkar idatzitako liburu baten aurrean egon naizelako izan da. Lehen aipatu dudana narratzailearen deskribapen xehe faltsuak dirudite: «Geletako batean piano bat eta gitarra bat daude, eta maisulan ezin ederragoa interpretatzen ari diren (?) musikariaren margolanak, eta beirazko apalategi bat, eta bertan orkestra bateko instrumentu guztiak, urrezko miniaturan» (47. or.). Eta gaizki emandako daturen bat agertzen da halakorik agertzea espero izatekoa ez den tokian: «Jonathan Swift, *Robinson Crusoe*-ren idazlea» (122. or.).

Tankera honetako liburuek, bestalde, itzultzaile gazteak trebatzeko aukera polita eskaintzen dute normalean; hala izan da oraingoan, Miren Artetxek egindako itzulpen egoki eta duina tarteko.

Manu Lopez Gaseni

Besteak



Nola hitz egin arteaz umeei

FRANÇOISE BARBE-GALL

Itzultzailea: XABIER ANDONEGI

Nerea, Donostia, 2009

Irudiei begira

Frantziatik datorrigun liburu honek helburu du umeen artean pinturarekiko interesa zabaltzea. Helduei zuzendutako liburu da eta ariketa bitxia planteatzen digu formula praktikoko baten bidez. Alegia, irudi batzuei begira jartzen gaitu (xv. mendetik xx. mendera artekoak) eta, koadroei arretaz begiratze horretan, artea gerturatzea du asmo nagusia. Horrela bada, 30 artelan gertutik ikusi eta begiratzen erakusten digu, haurren adinaren arabera sailkatuta, 5 urtetik hasi eta 13 urte arte. Egileak horretarako galdera jakin batzuk egiten ditu, sarreran azaltzen zaigun bezala «jakin-mina asetzeko pistak» izango direnak.

«Lehenengo urrats egokiak» atalean aurkituko ditugu kontzepturik interesgarrienak, artera gogo onez hurbiltzeko ezinbesteko gakoak, baina, aldi berean, baliagarri izango zaizkigunak edozein toki publikotara egokitasunez agertzeko. Adibidez, autoreak diosku museo, antzerki, kontzertu edo biblioteka batera bisitaldia egiten dugunean, egun euritsuetan bezala eguraldi onarekin ere joateko,

tokian denbora gehiegi eman barik, umeak zer nahi duen aintzat hartzeko, e.a.

Idazlea arte-irakaslea ere bada, eta haur edo gaztearen psikologia gerturatzeko dio irakurle helduari, umearentzat museora egingo duen bisita ludikoa izan dadin. Horretarako, helduari iradokiko dio zer eta nola erakutsi, bien artean elkarrizketa sortu eta bisita konplizitatez burutzeko.

Eta, zer gertatzen da umeak halako galdera «inozo» baina erantzuten zaila den horietakoa egiten digunean? Danniel Pennac idazleak aspalditxoan «Irakurlearen eskubideak» dekalogo ezagunean zioenaren antzera, oraingoan ere Barbe-Gall-ek gogorarazten digu «eskubidea dugula guztia ere ez jakiteko», beraz, zalantzaren atea irekita uzten du eta, haur galderaren baten erantzuna jakin ezean, ezer ez dela gertatzen dio.


Aurrerago, zenbait pintura aukeratu eta deskodetzen hasten da. Zalantzak ditut zenbait galderari ematen zaien erantzunen inguruan, esaterako, *Poeta txiroa* koadroan (17. zk., 124 or.) haur txikiei ematen zaien informazioa estereotipoek markatuta dago, «urruti izan behar du gizon horrek zerbaite berria erosi zuen eguna» edo «ez du diru gehiegirik irabazten; asko jota, jateko lain». Egia da zenbait baieztapenek umore ukitua dutela edo ironiaz zipritindutakoak direla; eta, eskaintzen diren galdera-erantzunak jolas moduan hartuz gero, ariketa bitxia izan daitekeela. Baina... egokitasuna eta zehaztasuna galtzaile atera daitezke.

Edizioari dagokionez, berriz, koadroen irudiak txikiak dira, eta irakurleari zail gertatzen zaio

xeheetasunak aintzat hartzea. Adibidez, Bruegelen *Neguko paisaia patinatzaileekin* koadroan, apenas ikus daitezke «txori handiak eta beltzak» edo «herriko eliza». Hain justu ere, irudiei garrantzia eman nahi dien liburu batean, eskertzekoa izango zatekeen irudiok garbiago ikustea. Xehetasunak errazago antzemateko liburuak album formatu handiago batean argitaratu zitekeen, edo lupa bat oparitu ale bakoitzarekin.

Iaz, eta arteaz ari garela, Alberdania etxeak Alain Serres idazle ezagunaren «Eta Guernica margotu du Picassok» album ilustratua argitaratu zuen; irudi, argazki eta dokumentazio lan interesgarria. Ezagupen liburuak urri dira euskal liburugintzan. Horregatik, liburu honi eta gerora etor daitezkeenei interes eta gogo onez helduko diegu.

Asun Agiriano



Egin zaitez Galtzagorri Elkarteko bazkide

I. Jarraian aurkezten dugun fitxa bete eta ordainketa-agiriarekin batera, gure helbidera bidali:

Galtzagorri Elkartea

Zemoria, 25, behea. 20013 Donostia. Tel.: 943471487

behinola@galtzagorri.org — www.galtzagorri.org

Izen-abizenak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....Posta-kodea:.....

Telefonoa:.....faxa:.....

e-maila:.....

Ogibidea:..... lantokia:.....

2. Urteko bazkide-kuotaren ordainketa egin (40 €)

Galtzagorri Elkartearen kontu-korrontean dirua sartuz:

CAJA LABORAL – EUSKADIKO KUTXA

sukurtsala: Loyola 15 (20.014 Donostia)

kontu-zenbakia: 3035 0242 6 8 242 0 00247 1

Galtzagorri Elkarteko bazkide guztiak doan jasoko dituzte
Elkartearen argitalpen guztiak.